

Andaluziari ene bilduma

JON IÑAKI LASA

 **Susasa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1984 Jon Iñaki Lasa

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1984

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Hitzaurrea

Eskuartean duzun liburu hau Jon Iñaki Lasak plazaratzen duen bigarrena da. Ez dago esan beharrik «Alizia eta biok» liburua atera zenetik hona gure poetaren hainbat eta hainbat kontzepzio aldatu direla. Hau da hain zuzen ere Jon Iñakiren kezka handienetarikoa: irakurlegoak poetaren garapenaren ondorioa dastatu beharrean, lehenengo liburuaren estiloaren jarraipena bila dezan alegia.

Liburua Andaluziari eskeinia dagoela dio Jon Iñakik izenburuan, eta horrela da egiturari begiraturuz gero. Lau zati nagusitan banatzen da liburua: *Irudimena*, *Oihartzunaren agindua*, *Maitasun eta gorrotoen apunte nahasiak* eta *Heriotz isila*. Jon Iñakik era eta teknika ezberdinez azaldu nahi izan digu Andaluzia: Becquer, heriotza, maitasuna eta Lauaxeta; poesia, antzerkia eta narratiba. Elementu guzti hauek osatzen duten laukia litzateke Andaluzia, euskaldun baten Andaluzia, Jon Iñakirena alegia.

Elementu ezberdinak erabiltzen dituela esan dugu: olerkia, antzerkia eta ipuina; hirurak bat egiten dira liburuan; gai eta forma diferenteak tratatu ditu

Jon Iñakik, baina beti Andaluziaren inguruan, Andaluzia dutela helburu nagusitzat.

*Petenera andere,
ai kantuen herri hori.
Larroxa eta azeituna
aien sorleku hori
zeruen isladaratu
gau oro.*

Horrela, lehenengo zatian Becquer da inspirazioa; bigarrenean García Lorcaren oihartzunak aurkitzen dira: «Hil zeinuak» / «Voces de muerte...», eta granadatarraren antzerkigintzaren zenbait elementu: patua, «La casa de Bernarda Alba»ren heriotz-gelditasuna...; hirugarrenean Andaluziako herri-koplen sinpletasun goxoa aurkitzen dugu; laugarrenean, azkenik, García Lorca eta Esteban Urkiaga «Lauaxeta»ren arteko adiskidetasunean oinarriturik azken honen heriotza kondatzen digu.

«Ez dakit zergatik idazten dudan / ezta zertarako ere» diosku Jon Iñakik; eta arrazoia eman behar diogu hori idaztean, izan ere liburu honen historia dakienez edonork behin baino gehiagotan eginiko galdera

izango da hau. Liburu hau duela bi urte idatzi zen eta argitaletxe batera eraman. Han, jakituriaren zuloan sarturik nonbait, gorde zuten ez dakigu noiz arte; azkenik, itxoiteaz asperturik eta inolako erantzunik jasotzeko esperantza galdurik «Susa»koei pasatzea erabaki genuen.

Baina bere liburua irakurri eta gero aski ondo dakigu zergatik idazten duen Jon Iñakik: heriotza eta maitasunaren akabatzearen garratik libratzeko, beldur dena harrokeriaz maskaratzen den bezala; maskaratzen da erregez poeta: «heure irudi eta eitera / sortu dudan ororen jaun».

«Ez dut gehiago idatziren» esaten digu; baina horren alboan honelakoak ere ikus daitezke:

*poemaren orraztea
sentitu dut
baso gauetan.
Eta poemaren orrazten,
eta minez geratu naiz.
Beldurrez.
Poemak,
beldurra ematen dit.*

edo-ta:

*Ilargia ere haserretzen da nirekin.
Bai. Bart agertua dit.
Puxketa bat lapurtu diodala zuretzat
eta ez nauela maite.*

Dialektika honek autoafirmazio beharra isladatzen du:

Nihoiz baino Lasago naizenean...

Autoafirmazioz idazten duelako du, agian, bere poesiak sakontasun hori. Ihes egin eta utzi nahi izango zukeen bizitza honen zauria sakonegia zaiolako, imajina bat egiten duenean beste inola ere elkartzen ez diren bi mundu elkartzen ditu. P. Reverddy-k esaten zuen bezela, imajinak ez daude naturan, poetak sortu behar ditu naturan sakondu eta gailentzeko.

Ametsen enbatak sortu nau eta...

Poetak, tragedia klasikoetako pertsonaien heroe eta antiheroe izatearen min hura berarekin du, eta

urratua sakonegia da hitz jarioari leku egiteko. Bere garratzaren sakona gutxitan jaurtikitzen du, ez du sendatzea ere pentsatzen, nahikoa libratzea lortuko balu; eta horrexegatik ez da sintagma paralelo eta inkonzienteen pilatzera murgiltzen, minaren garrasia ito arte. Bere mina oso konzientea da, oso barrukoa eta arrunt ausnartua, eta horretaz pentsatzeak dakarkio gauzak ahalik eta hitz gutxienetan esatea, paralelismoak delikadeziaz hautsiz zehaztea, konkretatze eta mugatze beharra. «Beatrizen aita hil da» dio «Castaren Malura»ren lehenengo lerroan, eta «Beatrizen aita hil zait» bederatzigarrenean. Horrek dakarkio hitz jokuz baliatzea:

zirri-zorro egoiteko / zer egin

*Maitemortuetan barrena / bapateko bidaiaria
naiz*

Baina ezin du ezer oratu, errealitatea bera ere hestukaitz gertatzen da eta azkenean galderak dira erantzun bakoitzaren ondoren pilatzen zaizkionak, admirazio eta hasperenak.

Sakontasuna eta zailtasuna kideko ez direla ere badaki, eta horrexegatik poema asko eta askotan herri esaera eta tajueren atzean kausitzen ditugu «haziz ubeldu» maitasunaz ari denez, «cante jondo»an hainbeste «ai»ezkaren azpian ondu den bizitzaren giharra bezala. Askotan imajina estuen ondoan konparazio simple antzeko horien bidez:

Aitortzen dizut (...)
Eta ez diodala nik,
nihoz,
poema baino
laban zorrotzagorik
bihotzari eskaini.
Edo bai.
Zu.

Beste askotan espero ez dugun forma simple baten zertzeladak, sinpletasun hori zein tranpa handia den erreparatu arte:

Ahantzi eginen zaitut.
Zure oroitzea
aukera dezadan
bertze goiz batez.

Guk ere, ahantzi eginen dugu poema bakoitza, gero gosaltzean madalenaren zapoak gogora erazi diezagun nola maitemindu gaitezkeen poema baten oihartzun batetaz.

Kandela

Gison oker baten kulpiagatik
itxasora maleta bat jausi
jakon eroiari,
Iñakiri,
beste maleta
asko salbau sauselako
neretzat olatuetan burrukan.

**IRUDIMENA,
BECQUER-i**

Aitor egin dezadan

Ez dut ezertxo ere hestutzen
ene gorputza oratzen dut
—edo gorpua—.

Hori bai.

Euriari ba dinotson bezala
batseinen aurrean,
zeure begiraden izuor.

Neugan daukazun gelditasuna,
baretasun agerikoaren aitzinean,
joan doazen urteen uraz
sortu dut

ene barrutia.

Ene harrokeriarentzat eraikitako
deabruzko inguru hau.

Eta beldur naiz arrailduko zaizkidan.

Eta jabe bilakatu naiz.

Neure irudi eta eitera
sortu dudan ororen jaun.

Baina ikara naiz suntsituko zaizkidan,
eta ezerezean aldatuko;

nekazariari uzta,
erne huts
aro gaizkinetan gisa.

Ai ene! Adolfo

(Azken hasperena)

Aire gihartsu hau;
ai ene!
ingurune neurea.

Kaleko argiontziek,
orok dakite.
Orok,
zirri-zorro egoiteko
zer egin.

(Azken laztanaren nigarra
dasta aurretik barkatu zintudan,
Casta).

Castaren malura

Beatrizen aita hil da; eta azken hitza
jazarri diote hilarrian.

Era postumoz jaiotza has dakion. Bizirik
dirauela frogatzen duen epitafioa:

Nor eseriren da?

Nork oratu, nork hertsiren ditu
ene alboan eskua, betazalak?

Nork eginen du marmar?

Nor oroitu ene egun haundian?

Beatrizen aita hil zait; eta,
Bihotzean min dut, min etsia,
negar ixila darion mina,
Lizardizko bihotz honetan.

Castaren meditazionea

(Ez dakit zergaitik idazten dudan.
—ezta zertarako ere—).

Izpi diztirak nigan

itzaleko errauts bhakatzean,

Fatalismoaren aurka?

Lokamutsen areno izateagaitik?

(CONCUPISTENTIA)???

Ez dakit.

Agian, biziroago hestutzearren.

Oxala zugaitik!

(Zeinen era ilunez
dirakidan.

Eta zeinen ixilez
hilargi gau argitan
lili zimel bailitz,
izpi eza den
arima neureak).

**OIHARTZUNAREN
AGINDUA,
HIRUR ZATITAN
BEREIZIA
ETA BANATUA**

Iradoki moduan: **E**dozein deusez. Edozein inonez.
(egileak) Ez dago denborarik.
Nahitanahezko teloi kolorgea
hasieran.
Argi jokuak, soinu eta
bertzelako,
jakintsuenen esku laga ditut.

(Oihartzunaren agindua):

«UHAINEN MENPE IZANA LUDITU»!

Maiteri ubela,
etzaldirat abiatu dute.

Nabarri xuritan,
hotzak blai.

(Lehengo ozpina bailitzan
Pontzioren eskuetan)

Horrela opa diote atsedean.
Arestian, hondarra oroitu dut.
Nihoiz baino Lasago naizenean,
hasperenek erasotu ohi naute
hildakoen azken hitzez:

« **A**metsen enbatak sortu nau, eta
itsasoak eraiki.
Ilargiak izgoren antzera.
Baina osteraz baztertu naute.
Zeru arlotea ene gisa laga,
Eiki ditziren beilari
Erromako zubipean ».

Hil zeinuak, dardarka,
ixiltasunaren zantzu bilakatu dira.
Deusezaren errainu
maitalearen gogoan.

« **H**emen iragan da ene izatea.
Honen ikustera hel nintekeenik
nork ediren zukeen? ».

**Bigarren zatia
eta jarraipena**

ALGOR MORTIS

Zerraldo baltza besa besaka daramate,
gero nik
gero zuk
hark orain.

Oro da kaltearen beldur.

HILAK—(«Honera zaitetze, arren»).

Eskari eta otoitzen gaindi,
erostarien zantzu merkeak jabe.

Bapatean, nausiaren itauna
orroa estaliz:

«Badazagua nihork»?

Hil kanpaiak, ikaraz,
ixil gogorrean geratu dira.

«Ezagutzen al du inork»?

Eta ezetza eman diote.

«Ez al da daki inork nor dugun»?

«Nor den?»

Eta ezetza eman diote.

«Orduan, bakarrik al dago»?

Eta baieztatu egin dute buruaz.

«Zer eginen dugu»?

Eta soinak goratu dituzte.

«Ehortzi eginen dugua»?

Eta, BAI, BAI, EHORTZI, EHORTZI...

oihukatu du herriak.

Ahotsak berriz:

«Bete, bada, zuen nahia».

HILAK—(arnasestuka)

«Honera zaitezte, arren.

Zatozkidate, etorri».

**Hirugarren zatia
eta jarraipena**

RIGOR MORTIS

(Jaun andre, irakurle maiteok,
honaino heldu gara.

Egun, oro daramate eta, patuak aukera bakarra
eskeintzen didan arren, erabakia hartu dut:
Eroen hildoa niganatu).

HILAK— «**I**ngura zakizkidate erditu berriok, eta
entzun.

Hau, ene etsipena da eta, zuentzat
aitortua

bekatuen barkatzeko».

«Ametsen enbatak sortu nau, eta
itsasoak eraiki.

Ilargiak izgoren antzera.

Baina osteraz baztertu naute.

Zeru arlotea ene gisa laga,

Eiki ezaren zaintzaile».

Maitasun eta gorrotoen apunte nahasiak

*Bere pozoinaz
jarkiezinezko
eta gazimin
gorputzadarren
laxatzaile horrek, Maitasunak
narrasti baten antzera
lur jo erazten nau.*

(Sapho)

(Gogo eta helburu
batzen zaizkit
iradoki soilean).

Zapiaren isladan
murgilduz,
eta barruratuz,
gurkera erraza dagi
zure hasperenak.
Zuk ba dakizu.
Eta mila bekatu

burmuinetaraten zait.
Ezinezko azti gogoetak
jaurtiki adibidez,
odeietan erditzen diren
oinazturen antzo.
Maitasunaren hordialdirik balego,
bihotzean izan gabe,
hondamenerat bortxatu;
edo bizitza zapuzturat.
Eta zuk ba dakizu.
Ez ala?
Ez nauzula maite.
Eta mila bekatu
gogoratzen zaidanean,
ene begiak,
malakoak zauritzen dituela.
Eta niniak xehatzen dizkidala
nigarrak.

Miazle egarritsuenari

Ai! Iduzki neurea.

Erradazu.

Zeren arrantzatu ohi nauzun,

eta zeren hatzeman.

Zergaitik bilakatzen zaidan

epailerik trebeena

goiz bakarraren izpi soila.

Zeren abiatu

beharra daukadan

ontsa hiltzeko

bideotan.

Erradazu,

hildoratu eginen nauzun

ezinbestez

mingainen herrietarat;

Edo aukera ezaz

amesten dudan

eskupeko zabala

zuretzat.

Erradazu bederen

zurruztatzearen eskerraz;

eta «zeren»a emanen dizudan ahala,
zeren, azkonak lagaz,
arerioen ostantzetan
gibeldu ohi zaren
gezurrezko ikara
bide duzularik.
Badirudi, iadanik
ez zaizula atsegin
loreak ximeldu
eta odeiak irentsi.
Badirudi,
lar artean jausi naizela
zai,
inpernura nazazun,
eta eri.

Ilargia ere haserretzen da nirekin.
Bai. Bart agertua dit.
Puxketa bat lapurtu diodala zuretzat,
eta ez nauela maite.

Zer eginen dut,
ausarketan ez banaiz
erraiten.

Zer eginen dut,
maite denerako
irakatsi dizkidaten
berbok,
hamaikaren sasistorion erruz
lotsaketan banaute.

Zer eginen dudan erraidazu,
azken neurtustetan,
ilunbe hautsez
elikatzen naizela
bururatzen zaidanean.

Ahantzi eginen zaitut,
zure oroitzea
aukera dezadan
bertze goiz batez.
Bertze goiz batez,
amattok josiriko
horren maite duzun pitxiaz
ager zakizkidan.
Bertze goiz batez,
zurekin egoiteko.
Bestela,
nola onetsiren
ahantzi ezik
nehork zu
gau oro?
Horregaitik ixiltzen zaitut
ene gogorako.
Nigar eitteko.

*«...borthiak xuri dira elur dienenian
sasiak ere ülhün osto dienenian...»*

Eta zu,
Nola zaren zu
jakin nahi nuke.
Nola,
dagoeneko poesia oro
zeugaitik aldaturen nuenean.
Nola,
poeta zigorra soilik
dagidazun honetan.

Ez dut gehiago idatziren.

Zeren aitortu?

Zertarako idatzi

maitasuna bekatu den

herri honetan?

Madarikatzen NAUT.

(Ez naiz buruaz mintzaturen).

Eta, ez naiz harritzen.

Ni ez naiz harritzen.

Egun, xuriz jantzi naiz.

Badakizu?

Udaberrietako herrien omenez.

Arratsaldean,

espaloietan zehar

abiatu naiz, eta

krabelin gorria eskaini didate.

Eta hostroetarat

ixuri zaizkit

nigar puxketa bi.

Badakizu?

Diximula barik.

Halaber,

txokoetako poetari

inguratu natzaio

diximula barik.

Eta krabelina luzatu diot.

Para hoy! Para hoy!

entzun dudanean,

krabelina luzatu diot.

Eta begiak zabalduz,

hezetu egin du

lurrun oro.

Zu orain,

hitz hauek eskuetan,

gogoratzen zait

zure pentsatzea.

Burua jaso

eta amilduren balitzaizu hezerik,

oro suntsituren zenuke hitza.

Burua jasotzen baduzu zeruetarat,

poema zaizu

eskuetan deusezturen.

Heautontimoroumenos

*(«Oñetako lur au jabilt ikara
Lau aragiok berean berala...»).*

Noraezean abiatzen naiz,
ene mugetatik urrun.
Ziur aski, inpernuetan barrena.
Ilunpetako huntzen izu
uretaratzen naiz,
itsas gizonak ekaitzen bezala.
Kliskarekin bat
gizondutako haur horien antzera,
uhainen so.

Haziz ubeldu da maitasuna.
Aroetako begi arazia,
batsein ilun, deabrukide
bilakatu delako
abiatzen naiz noraezean.

Eta ez dut zama astunik nahi.
Orain, herri oro zuti bitez,
eta bertze jauretze bat asma.

Eta nehork ez zuen ikusi (bi ekitaldi etsipenarentzat)

I

Haize gogorrenak behar ditut gau honetan.
Ilunpeko indarrok. Hots dagizuet.
Lehorte anintz iraun dut eta,
jaurti nazazue
urrun,
hautsarekin huts.

II

Bolada zakarrenak osa bezate
ene itzala gau honetan.
Odeiertzak behar ditut eta,
nagorzue deusezaren bila
urrutirat.

Zu, 3'5 gramoren
beldur zarena.
21eko diametroaren
izuorra.
Potoan formoleraturen
zintudake,
nire askatasunaren bide,
zeure hoberako,
atra dizkidazun
atxekiz.
Zigarroa pizturen dut,
eta zu bezala,
haundi izanen naiz.
Badirudi neskatxa,
badirudi,
emakume zarela
azken urteotan.

Laket zait, eta gura dut,
astiro ibili.

Astirotxo.

Edonorat aienaturen nauen
ahur izerditsu hau
ozpinetan gardendu.

Edo haizkolaho zorrotzenez
aldendu betiko.

Atsegin zait, eta gura dut.

Edo beharrezko;
zu beira egin,
eta astiro.

Astirotxo.

Petenera andere,
ai kantuen herri hori.

Larroxa eta azeituna
aien sorleku hori,
zeruen isladaratu
gau oro.

Eta beira egin,
eztiki.

Astirotxo.

Itsasoetako gezalak
lokartzen nauela
sentitu dut
basoetako gauetan.
Haizeak besarkatzen nauela
emeki.
Neguz,
ihesi
kantatzen didatela.
Urrunean hezitzeaz
Udaberritan Hegotik.
Ortzia soilik
eni beira
eta lekuko,
poemaren orraztea
sentitu dut
baso gauetan.
Eta poemaren orrazten,
eta minez geratu naiz.
Beldurrez.
Poemak,

beldurra emanen dit.
Soinuka,
poemak,
nota sastaka,
gai dudana
zauritzen dit.
Aitortzen dizut,
gorrotatzen zaidala
eria,
idazten dudan
neurri bere berean.
Eta ez diodala nik,
nihoiz,
poema baino
laban zorrotzagorik
bihotzari eskaini.
Edo bai.
Zu.

«Amour en latín fait amore»

I

Ongarri naiz egiatan
saientzat.
Maitemortuetan barrena,
bapateko bidaiaria naiz.
Eta, eikiaren ezpainetarat
igorriren naute
mokobaltzok.

II

Isladetan murgildurik
somatzen zaitut goizero.
Eta, amets hutsetan,
ezerezetan,
iluntzeko itzaletan
aztarren bila abiatu.
Goizero oroitzen zaitut,
eta bila nabilkizu.

III

Igurikaturen nauzula

errain didate.

Eta betiko txokoan egonen zarela.

Eta liliak usaintzen.

Eta ene zain egun osoz.

—Parre eginen didazula ere—.

IV

Egitan, maitemortuetan barrena

suntsituren naute

mokobaltzok.

Heriotz isila

(Egiazkoa)

*«Ona emen nago: Goizean so dagit
sarkalde argira;
arratsean, barriz, sorkaldera nago,
izarren begira.*

*An geure bizitza, atsedean, eziña,
jadetsi eziña!*

*Ezin batu doguz elburu batean
amets ta egiña».*

(Urkiaga).

istorioaren balizko eramaleari

Ene izate urriak erazten nau, erlastar bailitza ezten zorrotzez. Bertzerik botatzeko «guraz» naiz bada:

Aspalditxo iada errainen nuke, deus egin ez zuenik jazarri nuen. Gogoan zait barneratzen. Eta, egunarte, zergaitik ez ugari

ukan dudalarik enekiko, zatikatu eginen
dizut hemen. Gaiarekin bat doalako. Nahi
dudalako. Ulerturen duzulakoan,
eta ZERGAITIK EZ.

I

Behiala ikusi nuen, eta horma hotzean deus
errain baga. Baina aparteko era bereizian
oroitzen dut; nihoiz deus bezala, edo haurrak
lehen jostailuaren antzera. Ez dakit.
Harez gero, maiz aritu izan natzaio gertaerari,
nahiz eta nekezak darraikidan zorikaitzez.
Bai. Gupida bako zigorrak.

II

—Zer gertaketan yaku uri onetan?
Zergaitik usuek negarretan blai?
—Gizona fusilatu dute. Bizkaitar gazte bat.
Izarrak soilik omen dira lekuko
gorpuaren behilari.

Ez du bertze deusik galdatu Soraiak.
Udaberrietako enaren anuo, «beriala
etorriko da aitxatxo» adierazi die hurrei.

Emazteari ere. Eta laztandu ondoren,
bihurtuko zenentz jakiteke lagatu ditu
jostatzen.

III

Urrunean, so eginez pausatu zaie. Baina
handik, gauza haundi oro huts bilakatzen
diren urrunetik, ez da ez, maitearen malko
gazietaz nausitu.

IV

Gauaren itzala heldu zaie izarrei.
Belztasunetan murgildu da Soraia. Kirua
errauts bezala.
Ikaragaitz, jarraiki egin du pozarren. Baina
aitor niezazuke, ez dakit zerebelu eraginez ote
zenentz, ez bait dut azalez baino haren arima
ukitu ahal izan.

V

Azkenik, iritsi naizenean, izpiño apur batzu
azaldu zaizkio «elikagai» aldatuz.
Izadiaren begi ikusberak, eta Soraia.
Zeruetan gaindi eta lur azalean gorpuaren

beilari bakarrak.

Oro etsiturik, loak hartzen du (Lokamutsen beltza dela) egia dela. Zurraren taupada hotsak balentzuzki, alde batetik bertzera dabilela.

Etzaranik, ez dela goizeaz jabetu lanbroak busti nauen arte.

VI

Eskuineko begia zabaltzerakoan, ezkerrerat irauli du burua lokamutsen bila. Begirada egurastu du inguruan; eta hertsitakoa zabalduz, gorpuari so geratu. Gero, istilean datzan bere gorputzari begieman dio ardura ezaz.

Eskuak dardaran, arnasestuka, gibela eman dio iadanik zohardi den goiari. Eta nigarrez. Geroztik ez omen du nihork ikusi.

Amaia

Bertzea geuk ere nahi genuke, baina bertzea ez da erraitekoa. Halere bai, eta bai diot, nihor ausarturen balitz hemen aitortzen dena itxuraldatzera, edo pentsaturen balu aldatzerik, oroit beza Salomon jaunaren hitza, eta zalantza bedi. Eta eror bekizkio izkutuka aipatzen diren zigor oro. Ostera, liburuan zehar agertzen diren hildakoak pakean lagatuz gero, horra hor beretzat zorion guztiak. Liburukoak eta bertzelako. Errain beharra bait dut: Gehitu edo berritze lana jaunoro jaunaren esku dagoela. Edo honenbeste maite ditudan horienetan.